

NEIKERrentzat betebeharrak bat da gure erakundeko pertsonen Segurtasuna eta Osasuna sustatzea, eta, helburu estrategiko moduan, erabaki du beharrezkoa dela Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistema bat (aurrerantzean LSOKS) ezarri, inplementatu eta mantentzea, laneko arriskuak prebenitzeko helburu nagusiarekin, kontzepturik zabalenean. NEIKERreko Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzen du kultura hori, gure langileen arriskuak ezabatu edo minimizatzeko eta kontrolatzeko esperantzaz. Halaber, espero dugu horren ezarpenak lagunduko digula Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legeak araututako eskakizunak betetzen.

LSOKSek gure egitura hierarkikoan eta gure jarduera guztietan integratuko du prebentzioa, beharrezko metodoak jarriko ditu martxan arriskuak detektatu, ebaluatu, helburuak lehenetsi eta ekintza zuzentzaileak definitu eta aplikatzeko, emaitzen jarraipena egingo du eta egindako guztiari buruzko prestakuntza eta informazioa emango dio erakunde osoari.

Prebentzioa txertatzeko jardueraren oinarriko printzipio moduan, Zuzendaritza Nagusiak konpromiso hauek hartzen ditu:

- LSOKS sistemaren martxa onerako eman beharreko baliabideak ematea; eta horiek salbuespenik gabe betetzeko exijitza.
- Lan baldintza seguruak eta osasungarriak ematea osasuneko kalteak eta narriadura prebenitzeko.
- LSOko helburuen erreferentziazko esparrua ezartzea.
- Aplikatu beharreko lege betekizunak eta beste betekizun batzuk betetzea.
- Arriskubideak ezabatzea eta arriskuak murriztea.
- LSOko irizpideak txertatzea proiektuak sortzeko eta gauzatzeko prozesuaren fase guztietan, lan metodo guztietan eta erakundeko maila guztietan.
- Arriskuak kontrolatzeko esparrua ezartzea LSOorako.
- LSOKS hobetzea, NEIKERren prebentzioaren jarduera hobetzen den heinean.
- Gure langileen eta prebentzioko ordezkarien parte hartzea sustatzea LSOekin lotutako erabakiak hartzean.
- Prebentzioaren kultura sustatzea, langile guztiak etengabe prestatuz eta trebatuz, inplikatzeko eta pertsona bakoitzaren lanak gainerako kideengan, prozesuetan eta instalazioetan duen eraginaz mentalizatzeko.
- Politika hau osatu lezaketen beste Politika partzial batzuk ezartzea.
- Politika hau berrikustea, NEIKERreko arriskuen ezaugarrien eta magnitudearen aldaketetara egokitzeko.
- Alde interesdunen eskura mantentzea.

NEIKER osatzen duten kide guztiek ezagutzen eta onartzen dute Politika hau, eta, zuzendari nagusia naizen heinean, konpromisoa hartzen dut LSOKSen antolamendu tresnen aplikazioa sistematikoki bultzatzeko, eta lantalde osoari eskatzen diot lankidetzak kontziente, aktibo eta diziplinatuz erantzun dezan, gure erakundeak hobetzeko duen ahalmena gauzatzeko xedearekin.

Arkautin (Araba), 2022ko irailaren 23a

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Zuzendar Nagusia

Leire Barañano
Campus Agroalimentario de Arkaute
N-104, km. 355
E - 01192 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel: (+34) 945 121313